

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

## Badatoz

**i**ñaki De Juanaren gaineko aferaren ondotik, bertze auzi bati erreparatuko diote Espainiako Estatuko eskuindarrek; Nafarroari, alegia. *Hil ala biziko* kontua izanen da haientzat *Espainiako sorburu eta jatorria, espainiartasunaren ikurra* –Nafarroako Foru Komunitatea– euskaldunen hatzaparretatik askatzea. Madril eta Iruñea aldeko komunikabide, kazetari, iritzi-emaile eta iritzi-sortzaile gehienek gurutzadarako aldarria egin dute: “Salba dezagun Nafarroa. Zapaterok Nafarroa abertzaleen zangopean utzi du, eta hauteskundeen ondotik, PSNk Nafarroa Bai-rekin eginen du tratua, UPNkoak Gobernutik egozteko”.

Ez da erraza izanen, ez horixe, eskuindarrak Diputaziotik kanporatzea, baina aukera egon badago, eta aukera egote hutsak nerbiostu ditu, arras nerbiostu ere. Dena den, UPNk eta bere inguruko taldeek erakutsi dute ez daudela nolanañahi amore emateko prest. Joan den egunean, konparazio batera, Rubalcaba ministroak De Juana Euskal Herrira ekartzeko agindua eman ondoren, sumindurik eta kolera gorrian agertu zen jendetza handi xamarra Iruñean; Udaletxeko plazan, zehazki. Jendea harroputz zetorren Txapitela karrikan beheiti, begirada mehatxagarria zeriola, oihal hori-gorriak airean, bandera-kirtenak edonoren bizkarrean puskatzeko prest. Udaletxe ondoondoan bildutako batzuk *Cara al sol* abesten hasi ziren, eta Iruñeko alkate Yolanda Barcinak ez zuen zirkinik ere egin.

Bertzalde, ez da batere gauza segurua zer eginen duen Alderdi Sozialistak. Hau da, ezin jakin behingoan bertze bide bat jorratzen hasiko den ala burua lehengo lepotik agertuko duen. Oro har, PSNk nafar eskuinaren zerbitzuan eman ditu azken 25 urteak eta era guztietako loturak dituzte agintean daudenekin. Gainera, hauteskunde zerrendetan hautetsi izateko moduan jarri dituzten hautagai gehienak nabarrismorik itxienaren bultzatzaile edo dotrina horretako fededun sutsu dira, eta




MIKEL SAIZ

baztertu egin dute Nafarroaz ikuspegi zabalagoa duen jendea.

Gauzak horrela, aldetaren euskarri nagusia izan daitekeen taldeak, Nafarroa Baik, bere bidea egiten jarraitu beharko luke Alderdi Sozialistaren zain egon gabe. Ezkerreko koalizio abertzaleak, gainera, bere proiektua gorpuztu beharko luke, bere aldia izan daitekeelako. Alde horretatik, zenbat eta gorpuztuago egon, zenbat eta sendoago agertu, programa zenbat eta gehiago landu, gizarte-erakundeekin zenbat eta harreman handiagoak izan, hainbat eta hobe izanen da Nafarroan gauzak azalez eta mamiz bertzela egiten hasteari begira.

Beraz, Nafarroa Baik gaina hartu beharko lioke Fernando Purasen alderdiari. Eta horretarako, ez da aski izanen Nafarroa euskalduna dela erratearekin. Bertze era bateko boto-emaileak bildu beharko ditu; esaterako, urte sail luzean, arrazoi hau edo hura dela medio, abertzaletasunari bizkarra eman dioten jendeen botoa. Denok dakigu zer-nolako zaparrada jasan duen Nafarroak azken mende laurdean Iruñea eta Madril aldeko agintari politiko, militar eta ekonomikoengandik, bai eta alderdi politiko, sindikatu eta komunikabide nagusietatik ere.

Denak gogotik saiatu dira, saiatu direnez, Nafarroa euskaltzaletasunetik urruntzen, eta hein batean, lortu dute. Datozen asteotan, indarberriturik azalduko dira, eta prest, beren irratsaio mehatxagarrietan iragartzen dutenez, Iruñera etorri eta Nafarroa salbatzeko. Ez dira ETAREN beldur, haien boterea kolokan jar dezakeen indarraren beldur baizik, eta prestatzen ari dira aukera hori galarazteko. XX. mendea gogoan, badakigu nola jokatzen duten, aski eta sobra ezagunak baitira haien manera “demokratikoak” gauza txikienetan ere. Azkena izan da Iruñeko udal agintariak erakutsi duten itxikeria gizarteak German Rodriguez gaztearen omenez paratutako hilarriaren inguruko auzian. Kendu dute, eta kito. Beraz, orain, noraino iritsiko dira? 

«  
Ez dira ETAREN beldur,  
haien boterea kolokan jar dezakeen  
indarraren beldur baizik, eta  
prestatzen ari dira aukera hori  
galarazteko  
»